

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

ArkitekturaUnibertsitateMasterra 2024·2025

A MasterGela
Ikaslearen Gida



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

Tabla de contenido

ARKITEKTURA MASTERRAREN AZALPENA.....	3
DATU OROKORRAK	3
IRAKASLEAK	3
SARRERA	3
LANERAKO GAIAK	4
HELBURUAK	4
MASTERRAREN EGUTEGI OROKORRA.....	4
KLASEAK.....	8
GARAPEN TEKNIKOKO KLASEAK	9
PROIEKTUEN GARAPENA IRAKASGAIA.....	10
IRAKASGAIAREN EDUKIA	10
METODOLOGIA.....	10
<i>Klase praktikoak</i>	<i>10</i>
<i>Klase teorikoak</i>	<i>11</i>
<i>Ikasgelako eskola-orduak</i>	<i>11</i>
EGUTEGIA.....	12
EBALUAZIO SISTEMA	13
PROIEKTU GAIAK.....	14
<i>Etxebizitza jardunaldiak.....</i>	<i>14</i>
<i>Bienalean aurkezpena</i>	<i>14</i>
GAI OFIZIALA	15
(BESTE GAI OFIZIALA BAT GEHIAGO PREST EGON DAITEKE MASTERRKO HASTAPENETAN).....	15
<i>MARTUTENENKO APOSTOLUTZA KALEAREN INGURUA.....</i>	<i>15</i>
BALIABIDE ERABILGARRIAK.....	16
<i>Bibliografia</i>	<i>16</i>
<i>Web lekuak</i>	<i>16</i>



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

Arkitektura Masterraren azalpena

Gida honetan masterraren antolaketa orokorra ete proiektuen garapenaren irakasgaiaren antolaketa azaltzen da. Garapen teknikoa hiru ataletan banatzen da. Hauetako bakoitzak, (Eraikuntza, Atondurak eta Egiturak) bere gida propioa izango du. E-gelan publikatuko dira

Datu orokorrak

Ikasturtea	2023-2024		
Ikasgaia	240 – Arkitektura Goi Eskola Teknikoa		
Plana	ARQUI12b – Arkitektura Unibertsitate Masterra		
Saila	137 – Arkitektura		
Irakasgaia	504713 – Proiektuaren Garapena	ECTS kredituak	12
Irakasgaia	504354 – Garapen Teknikoa	ECTS kredituak	9
Irakasgaia	Practicum	ECTS kredituak	9
Master Amaierako Lana		ECTS kredituak	30

Irakasleak

Proiektuaren Garapena

Javier Puldain Huarte, proiektuetako arlokoa
Jon Begiristain Mitxelena, proiektuetako arlokoa
Izaskun Aseguinolaza Braga, hirigintza eta lurralde antolamenduaren arlokoa

Garapen Teknikoa

Jon Begiristain Mitxelena, egituren arlokoa
Iñigo Lizundia Uranga, eraikuntzaren arlokoa
Xabat Oregi Isasi, atondura eta zerbitzuen arlokoa

Sarrera

Master Gela izendatzen dugu Arkitektura Masterreko ikasketa eta lanak garatzeko lekua. Lan praktikoa eta bere zuzenketa du oinarri, eta haren inguruan antolatzen dira ikasgai teoriko eta hitzaldiak.

Arkitektura Masterra arkitekto titulua lortzeko unibertsitateko azken maila da. Bertan Ikasleak proiektu baten definizioaren ibilbide osoa garatuko du, bakarka. Lan hau, programaren definiziotik hasita, proiektuaren urrats ezberdinetatik pasata definizio teknikoraino jorratuko da. Graduan zehar egindako irakasgaiarekiko desberdindu nahi da honako lan hau. Desberdintze hau aspektu ezberdinetan garatu daiteke, besteak beste:

- Proiektu bateratu oso baten garapena da, bertan irakasgai ezberdinetan jasotako ezagutzak konbinatu behar dira, hirigintzatik hasita, proiektuetatik pasata, definizio teknikoraino. Atal ezberdina hauek ez dira arlo isolatu bezala ulertu behar, uztartutako ikuspegi eta definizio bezala baizik.
- Proiektuaren Gaia, kokalekua eta programa proposatzea eskatzen da hasiera batean. Hauen egokitasuna eta inguruan duten zentzua proiektuaren hausnarketaren lehen urratsa izango da.
- Ezinbestekoa ez izan arren, proiektuaren izaera propositiboa aintzat hartuko da. Zentzu horretan,



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

proposatutako gaia ofiziala hiri egoera estrategiko baten baitan kokatzen da.

Lanerako gaiak

Ikasle bakoitzak kurtsoan jorratuko duen gaia, honako aukera hauen artean hautatuko du:

a) Librea. Ikasleak hasieratik gaia eta kokaleku bat aukera dezake, gustuko duen tokian eta programarekin. Urtean zehar eraikina garatuko du. Modu hau aukeratzen duen ikasleak kurtsoan lehen klasean ahalik eta informazio gehien eraman eta azalduko du. Proiektua planteatzeko nondik norako nagusiak edo-ta lehen hausnarketak azaltzea eskertuko da.

Aurkezpen horretan proposamenaren egokitasuna baloratuko da. Egokitasun hau, Master Lana ongi garatu ahal izateko ematen dituen baldintzak bezala ulertu behar da. Esate baterako, gai bat handiegia, txikiegia, konplexuegia bada, zailtasunak eman ditzake Master Lana garatzeko. Beraz egokitasuna kontu praktiko bezala ulertzen da. Erreferentzia bezala 1.500-2.000m² inguruko azalera har daiteke.

b) Gradu Amaierako Lanean egindako proiektua gai bezala har daiteke. Aurrekoan bezala, ikasleak gaia, lekua eta programa azalduko ditu. GRALean egindako proiektua ekarriko du baita ere. Proiektua ezingo da bere horretan jarraitu, birplanteatze bat eskatuko da, dekonstrukzio bat nonbait. Klaseko lehen bi asteetan erabaki beharko dira proposamenaren nondik norakoak.

c) Gai ofiziala. **Martuteneko Apostolutza kalearen ingurua(k)**. Urtero bezala gai ofiziala proposatuko da. Aurten izaera berri bat emango zaio gai ofizialari. Graduan zehar egin diren proiektuetatik bereizteko, izaera propositiboa eman nahi zaio honako honi. Horretarako hirian definitzearen dauden esparru aukeratu da. Ingurune honek hasera batean taldean landuko da, eta ondoren, ikasle bakoitzak bakarka zati bat garatuko du.

d) Litekeena da Urriaren lehen klase egunean beste gai ofiziala bat aurkeztea.

Helburuak

Master gelako Proiektuaren Garapena ikasgaiaren Irakaskuntza Gidak zeintzuk diren jorratu beharreko gaitasunak eta ikasketa helburuak ezartzen ditu. Horiek lirateke, laburki zerrendatuta, helburu nagusiak:

- . Programaren azterketa kritikoa, beharrak eta abaguneak
- . Erreferentzia eta aurrekarien ikerketa proiektuaren fase guztietan
- . Proiektua garatzeko prozesua dokumentatzea eta diskurtso bat osatzea
- . Eraikuntza sistema, egitura eta eraikinaren atondura eta zerbitzuak proiektuan lehen unetik sartzen diren faktoreak izatea.
- . Erabakiak hartzeko autonomia eta eraginkortasuna.
- . Lan tresnen erabilera (maketak, ebaketak, 3D, axonometriak, eskuzko krokisak...)
- . Egitasmoak eta gogoetak komunikatzeko gaitasuna.

Masterraren egutegi orokorra.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

Egutegiaren antolaketa orokorra.

Lehen lauhilekoa Urritik Urtarrilaren bukaerara izango da. Bigarren lauhilekoa Otsailaren hasieratik Maiatzaren erdira.

Lehen lauhilekoan Proiektu Garapenaren klase teorikoak eta praktikoak emango dira. Garapen Teknikoaren klase teorikoak egongo dira baita ere.

Bigarren lauhilekoan Garapen Teknikoaren klaseak egongo dira gehien bat. Lauhileko honetan Garapen Teknikoaren saio berezi bat egingo da ere bai, non proiektuetako eta teknikoetako aldeak, biak uztarturik, aztertuko diren. Master Gelako irakasle guztiak hartuko dute parte saio praktiko/kritiko honetan.

Garapen Teknikoko klaseak asteazkenero izango dira, egutegian xehetuta agertzen da.

Proiektuaren Garapenekoak ostegunetan izango dira. Goizetan klasea praktikoak izango dira eta arratsaldetan, gonbidatuen hitzaldiak eta Masterreko irakasleen klase teorikoak konbinatuko dira.

Egutegia xehetua erantsita doa, bertan emate orokor datak daude baita ere. Ez ahaztu hasierako egutegia dela, kurtsoan barna zenbait salbuespen sortuko balitz, e-Gelaren bitartez jakin araziko zaizue aldez aurretik.

Kurtsoaren aurkezpena Irailean egingo da, bi orduko saioan. Aurkezpena soilik, eta lehen klasea, berriz, Irailaren 30ean, osteguna, goizeko 9.30etan.



Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOA ESCUELA TÉCNICA SUPERIOR DE ARQUITECTURA

2022/11/21

ARKITEKTURA UNIBERTSITATE MASTERRA 2024-2025 20/5/24 ARKITEKTURA UNIBERTSITATE MASTERRA - 31 TALDEA (EUSKARA)

Table with 14 columns (ASTEA, ASTERENA, ASTARTEA, ASTAZUNA, PROIEKTUAREN GARAPENA, GARAPEN TEKNIKO, GARAPEN TEKNIKO, PROIEKTUAREN GARAPENA, OSTIALA) and 14 rows (1-14) detailing weekly schedules for architectural students.

2022/11/21

ARKITEKTURA UNIBERTSITATE MASTERRA 2024-2025

205/24

ARKITEKTURA UNIBERTSITATE MASTERRA - 31 TALDEA (EUSKARA)

ASTEA	ASTE BERRIA							ASTE BERRIA							ASTE BERRIA							ASTE BERRIA							ASTE BERRIA											
	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	32	33	34	35	36	37	38		
15	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA	A MASTERGELA	B MASTERGELA				
16	05-07 OTS	08-14 OTS	15-21 OTS	22-28 OTS	01-07 MAR	08-14 MAR	15-21 MAR	22-28 MAR	01-07 API	08-14 API	15-21 API	22-28 API	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	22-28 JUN	01-07 JUL	08-14 JUL	15-21 JUL	22-28 JUL	01-07 AGR	08-14 AGR	15-21 AGR	22-28 AGR	01-07 IRA	08-14 IRA	15-21 IRA	22-28 IRA	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	
17	05-07 OTS	08-14 OTS	15-21 OTS	22-28 OTS	01-07 MAR	08-14 MAR	15-21 MAR	22-28 MAR	01-07 API	08-14 API	15-21 API	22-28 API	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	22-28 JUN	01-07 JUL	08-14 JUL	15-21 JUL	22-28 JUL	01-07 AGR	08-14 AGR	15-21 AGR	22-28 AGR	01-07 IRA	08-14 IRA	15-21 IRA	22-28 IRA	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	
18	05-07 OTS	08-14 OTS	15-21 OTS	22-28 OTS	01-07 MAR	08-14 MAR	15-21 MAR	22-28 MAR	01-07 API	08-14 API	15-21 API	22-28 API	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	22-28 JUN	01-07 JUL	08-14 JUL	15-21 JUL	22-28 JUL	01-07 AGR	08-14 AGR	15-21 AGR	22-28 AGR	01-07 IRA	08-14 IRA	15-21 IRA	22-28 IRA	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	
19	05-07 OTS	08-14 OTS	15-21 OTS	22-28 OTS	01-07 MAR	08-14 MAR	15-21 MAR	22-28 MAR	01-07 API	08-14 API	15-21 API	22-28 API	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	22-28 JUN	01-07 JUL	08-14 JUL	15-21 JUL	22-28 JUL	01-07 AGR	08-14 AGR	15-21 AGR	22-28 AGR	01-07 IRA	08-14 IRA	15-21 IRA	22-28 IRA	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	
20	05-07 OTS	08-14 OTS	15-21 OTS	22-28 OTS	01-07 MAR	08-14 MAR	15-21 MAR	22-28 MAR	01-07 API	08-14 API	15-21 API	22-28 API	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	22-28 JUN	01-07 JUL	08-14 JUL	15-21 JUL	22-28 JUL	01-07 AGR	08-14 AGR	15-21 AGR	22-28 AGR	01-07 IRA	08-14 IRA	15-21 IRA	22-28 IRA	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	
21	05-07 OTS	08-14 OTS	15-21 OTS	22-28 OTS	01-07 MAR	08-14 MAR	15-21 MAR	22-28 MAR	01-07 API	08-14 API	15-21 API	22-28 API	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	22-28 JUN	01-07 JUL	08-14 JUL	15-21 JUL	22-28 JUL	01-07 AGR	08-14 AGR	15-21 AGR	22-28 AGR	01-07 IRA	08-14 IRA	15-21 IRA	22-28 IRA	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	
22	05-09 MAI	10-16 MAI	17-23 MAI	24-30 MAI	31-06 JUN	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	22-28 JUN	01-07 JUL	08-14 JUL	15-21 JUL	22-28 JUL	01-07 AGR	08-14 AGR	15-21 AGR	22-28 AGR	01-07 IRA	08-14 IRA	15-21 IRA	22-28 IRA	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	22-28 JUN	01-07 JUL	08-14 JUL	15-21 JUL	22-28 JUL	01-07 AGR	08-14 AGR	15-21 AGR	22-28 AGR	01-07 IRA	08-14 IRA	15-21 IRA
23	05-09 MAI	10-16 MAI	17-23 MAI	24-30 MAI	31-06 JUN	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	22-28 JUN	01-07 JUL	08-14 JUL	15-21 JUL	22-28 JUL	01-07 AGR	08-14 AGR	15-21 AGR	22-28 AGR	01-07 IRA	08-14 IRA	15-21 IRA	22-28 IRA	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	22-28 JUN	01-07 JUL	08-14 JUL	15-21 JUL	22-28 JUL	01-07 AGR	08-14 AGR	15-21 AGR	22-28 AGR	01-07 IRA	08-14 IRA	15-21 IRA
24	05-09 MAI	10-16 MAI	17-23 MAI	24-30 MAI	31-06 JUN	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	22-28 JUN	01-07 JUL	08-14 JUL	15-21 JUL	22-28 JUL	01-07 AGR	08-14 AGR	15-21 AGR	22-28 AGR	01-07 IRA	08-14 IRA	15-21 IRA	22-28 IRA	01-07 MAI	08-14 MAI	15-21 MAI	22-28 MAI	01-07 JUN	08-14 JUN	15-21 JUN	22-28 JUN	01-07 JUL	08-14 JUL	15-21 JUL	22-28 JUL	01-07 AGR	08-14 AGR	15-21 AGR	22-28 AGR	01-07 IRA	08-14 IRA	15-21 IRA

PROIEKTURAREN GARAPENA 1. deialde URTARRILAK 29
PROIEKTURAREN GARAPENA 2. deialde EGASNE 6
GARAPEN TEKNIKOAZ ezahiko deialde OTSAILAREN 28
GARAPEN TEKNIKOAZ 1go deialde MARTXAK 23
GARAPEN TEKNIKOAZ 2. deialde UZTAILAK 11
MAL AURKEZPEN PUBLIKOAZ TRIBUNALAREN AURREAN ezahiko 4. MARTXOKA 21
MAL AURKEZPEN PUBLIKOAZ TRIBUNALAREN AURREAN 1. deialde UZTAILAK 4
MAL AURKEZPEN PUBLIKOAZ TRIBUNALAREN AURREAN 2. deialde IRAILAK 5

EMATEAK



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

Gaiaren aukeraketa

Ariketa librea egin behar dutenentzako, gai aurkezpena garatua ekartzea oso beharrezkotzat jotzen da. Egin nahi denaren landutako proposamena ekarri beharko lukete klasera eta erakutsi ere: programa, ideiak, erreferentziak, eraikuntza sistema, lehen gogoetak, maketa (behar bada)... ez planteamendu hutsala, intentsitatekoa baizik.

Gai ofizialekoek, berriz, agian ez lukete hainbeste lana aurreratu behar, halarik ere, tokiaren ezagutza, ahuleziak, dituen izaera arazoak, eskala ezberdinak... ezagutzekoak litzukete, eta klasean erakustekoak ere. Hiru kideko taldea egun horretarako osatuta izan behar dute

GRALeko gaia garatzea onartzekoa litzateke, beti ere, hasieratik de-konstrukzio prozesu bat planteatzen bada, gauzatutakoaren irakurketa kritikorekin batera. Ikasleak garbi izatea GRALak zer duen bideratua, eta zer duen birplanteatzekoa, zer gaizki... eta eraldaketak nondik nora jo behar duen ere.

Errepikatzaileek beren aurreko proiektuarekin segitu nahi izatera, prozesu berberetik pasa beharko lukete: analisi kritikoa, eta, eta garapenari nondik helduko erakutsi beharko.

Esan bezala, **lehen klasearen egunean**, gai libreko ikasleek nondik norako bidea hartu behar duten garbi erakutsi beharko lukete. Irakasleei proiektu oso bat garatzeko ahalmena dutela erakutsi.

Lehen bi asteetan proposamen bideragarria ez bada bilatzen ikasleak gai ofiziala hartu beharko du. Aukeran, bakarka lana egin nahi duen ikasleak aurreko urteetako gai ofiziala har lezake. **Bigarren asterako**, ikasle guztiek MasterGelako ikasturtean zein egin beharrezkin aritu behako duten argi eta garbi izan beharko lukete.

Klaseak.

Garapen Teknikoko klaseetan alor bakoitzeko irakasleak egongo dira, lauhilekoan zehar alor teknikoko gai bakoitzari klase egun batzuk egokituko zaizkio. Gai bakoitzak (egiturak, eraikuntza, atondurak) bere antolaketa eta ibilbide propioa izango du kurtsoan barrena. Ikasturte hasieran zehaztuko da klaseak nola banatuko diren.

Proiektuaren Garapeneko klaseak:

Klase egunak, hitzaldiak noiz eta non, eta salbuespenak atxikitako egutegian daude. Edonola ere, eta kurtsoa aurrera joan ahala zenbait aldaketa sortuko direlakoan, e-gelaren bitartez ere eguneratuko da egin beharrekoa.

Oro har, ostegunetan, goiz-arratsalde izango dira klaseak. Goizean zuzentze saioa, era arratsaldean, hitzaldi bat emango dute irakasle/arkitekto gonbidatuek zein etxeok. Kanpoko irakasleek erdaraz emango lukete klasea, eta hitzaldia erdarazkoarekin batera izango da, etxeok berriz euskaraz emango dute klase, eta A+B taldeentzako izango.

Printzipioz, emanaldiak "ofizio" saioak deituko ditugu, profesional batek emango duelako, eta alde aurretik jakin araziko da nork emango. **Etortzea erabat derrigorrezkoa izango da**, klase teorikoa bailitzan, Masterraren oso baitakoak baitira honako saio horiek.

Ostegun goizetan, talde bakoitzean, A eta B-n, zuzenketa orokorrak/norbanakoak egingo dira.

Ostegunero klasera etortzea, zuzenketa bai eta emanaldietara ere erabat derrigorrezkoa da.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

Garapen teknikoko klaseak

Lehen lauhilekoan garapen teknikoko aurkezpen saioak izango dira, hauetan egin beharreko lana azalduko da eta beharrezko diren kontzeptu nagusiei buruz arituko da. Honez gain, lehen lauhilekoan emate konbinatuak egon ahal izango dira, (proiektu+egitura, esate baterako) emate hauek aztertu eta zuzentzeko saio bereziak programatuko dira.

EMATETARAKO ARAUAK

Proiektuaren Garapena:

Gairen aurkezpena digitala izango da, eta lehen bi asteetan, gai libre guztien segitzeko egokitasuna erabakiko da (aldatuta, handituta, bere horretan, GRALarena...).

Urrian, Azaroan eta Abenduan zenbait emate eguna jarriko dira, bi edo aurreikusten dira, aldez aurretik jakin araziko.

Urtarrilaren erdialdean, Oinarrizko Proiektuaren emate ofiziala egingo da (edukien finkatzea klasean egingo da).

Maiatzaren emate hilaren bukaeran aurreikusten da, baino horrek aldaketa izan dezake kurtsoaren garapenaren arabera. Egutegiko data hori ez da finkoa. Hasieran aurkezpen digitala egingo da, horren paperezko alearen emate finkatuko da urtean zehar (A2an normalean).

Klase egunetan lanak erakutsi ahal izateko baldintza formal gutxi batzuk zehaztuko dira ikasturte hasieran: irudi landuak, argudioak, adierazteko gaitasun minimoa, esan nahi dena ongi borobiltzea...

Garapen Teknikoa:

Ikasturtean zehar azalduko dira emate arauak.

Nola egiten da Garapen Teknikoa, Proiektuaren Garapena gainditu ez denean?

Gainditu izan balitz bezala. Bi ikasgai ezberdin dira, eta ikasle guztiak biak jarraitu eta gainditzeko aukera bermatu beharko dute.

EZ OHIKO DEIALDIA

Ez ohiko deialdia egutegi ofizialean finkaturik dago.

Deialdi horietarako ez dago klase berezirik.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

Proiektuen Garapena irakasgaia

Irakasgaiaren edukia

Irakasgai honetan proiektuaren garapena jorratuko da. Arkitektura graduan egiten den moduan, gai orokor bat planteatuko da eta lehen lauhilekoan zehar garatuko da. Lauhilekoaren bukaeran oinarrizko proiektuaren ematea egingo da. Garapen maila Oinarrizko proiektuarena izango da.

Mundu profesionalen proiektuen alor ezberdinak aldi berean garatu ohi dira. Eraikinen dimentsio ezberdinak adostu behar dira eta askotan paraleloan jorratu behar dira. Esate baterako hiri araudiak betetzean eraikinaren egitura orokor edo materialen planteamenduak egin ohi dira. Edo azalerak ezagutzeko eraikuntza xehetasunen neurriek definituta izate beharrezko izan daiteke.

Graduan zehar irakasgaiak aske garatu ohi dira, masterrean aldiz, mundu profesionalera jauzia emateko azken urratsa izanda, egoera honetara Hurbilduko gara. Ez da erabat beharrezko alor teknikoak erabakita izatea baina proiektua garatzen ari denean irizpide teknikoak hartzen joaten proiektuaren mesederako izango da. Era berean, Oinarrizko proiektua emanda dagoenean, eta definizio tekniko xehetua garatzeko garaian, proiektua ez da izoztu, fase honetan proiektua bizirik dirau eta hobetzen jarraitzeko aukera eskaintzen du.

Irakasgaiaren izaera praktikoagatik bere edukia proiektu gai bakoitzarekin elkar lotuta dago. Ikasleak gaia erabakiko duenez, oso lan ezberdinak egon daitezke talde berean. Edonola irakasleok proposatzen ditugun gai ofizialak nabarmendu daitezke irakasgaiaren eduki bezala.

Gai ofizial hauek aurrerago xehetuko dira. Hiri gunek konplexuak dira. Bertan antolaketa orokorrak proposatuko dira eta ikasle bakoitzak garatzeko zati bat aukeratuko du. Antolaketa hauetan ezinbestekoa da etxebizitza kontutuan hartzea. Etxebizitza hirien oinarrizko osagaia da. Etxeak eraikitzean oinarrizko behar bat asetzeaz gain hiriaren dimentsio ezberdinak jorratzen ditugu. Etxebizitza dimentsio anitz horretan ulertuko da irakasgai honetan.

Ikasturte honetan eduki bereizgarri bat sartzea proposatzen da, 2025eko azaroan **Mugak Bienala** ospatuko da gure erkidegoan. Bienala proposamen teoriko bat izan ohi du eta urte honetan Master Gelan gai hau jorratuko dugu. Gai nahiko zabala da eta proposamen mota askotarikoak garatzeko beta emango du.

Metodologia

Bi klase mota egongo dira, teorikoak eta praktikoak. Banaketa hau ikasketa planetik definituta dator. Klaseen erdiak teorikoak izango dira eta beste erdiak praktikoak.

Klase praktikoak

Klase praktikoetan, graduko proiektu klaseetan egin den moduan ikasleak etxean garatutako lana ekarri eta azalduko du. Lan hauen aurkezpenak gehien bat publikoak izango dira talde osoarentzat. Tarteka, taldeetan banatu ahal izango gara proiektuen nondik norakoak modu lasaiagoan eta ikasle guztien partehartzea sustatzeko.

Gai ofiziala aukeratzen duten ikasleek, proiektuaren lehen urratsak talde lanean garatuko dute. Bi, hiru edo lau pertsonako taldeak osatuko dira antolamendu orokorra garatzeko. Lehen antolakuntza horren ondoren ikasle bakoitzak antolaketaren zati bat aukeratuko du bakarka garatzeko.

Hasera batean gai ofiziala aukeratzen ez dutenek bakarka arituko dira. Dena den, posible da gai libre bat proposatzea hasierako urratsetan taldean garatuko dena.

Aurrerago xehetuko da lan prozesuaren egutegi proposamena.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

Klase teorikoak

Klase teorikoak bi motakoak izango dira. Alde batetik Master Gelako irakasleek klase teoriko magistralak emango dituzte. Klase hauetan proiektuaren gai nagusi bat azalduko da. Hirigintza eta Arkitektura Proiektuen gaiak izango dira. Klase teoriko hauek A eta B gelentzat berdinak izango dira eta bi Master Gela hauen irakasleek emango dituzte.

Gonbidatuen hitzaldiak

Lauhilekoan zehar profesioaren ikuspegi ezberdinak jorratzen dituzten profesionalak ekarriko dira hitzaldiak ematera. Askotariko sorta izango da, eskala eta esparru ezberdinen adierazleak dira. Batzuk bulego txikiak izango dira, besteak autore arkitektura egiten duten arkitekto ospetsuak. Bulego handiren bat egon daiteke baita ere. Hirigintzan aritzen direnak ekarriko dira lauhileko hasieran. Bulego kudeaketa modelo bereziak dituzten ereduak ekartzen saiatuko gara baita ere. Gure eskolan formatuta, inguruan lan egiten duten bulego txikiak gonbidatu izan ohi dira baita ere. Klase teoriko guzti hauen artean profesionalko modu egokian garatzeko ikuspegi orokor bat eskaini nahi da.

Aurten klase teoriko mota berezi bat izango dugu. Nagusiki gai ofizialari zuzendua, baina guztiontzako baliagarri izan daitekeena. Azaroaren lehen astean etxebizitzari buruzko jardunaldiak ospatuko dira Eskolan. Lau egunetan etxebizitzaren ikuspegi ezberdinak jorratuko dira. Egun bakoitzean gai horiei buruz ikuspegi berritzaileak lantzen dituzten profesionalak ekarriko dira. Ez da kontu teoriko hutsa izango, arkitekturan aritzen diren profesionalak izango dira. Landuko diren gaiak hauek izango dira: Kudeaketa modelo berria, ikuspegi sozial eta generoarena, proiektu eta eraikuntza berrerabileraren ikuspegitik eta ikuspegi ambientala.

Ikasgelako eskola-orduak

Klase teorikoak	60	ordu
Klase praktikoak	60	ordu
Irakasgaiari klasez kanpoko ardura	180	ordu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

Egutegia

aste	data	klasea	oharrak
0		MasterGelaren aurkezpena (2 ordu)	
1	Urri3an	goizez: gai proposamena arratsaldez: klase teorikoa	Gai ofizialetan talde lana
2	Urri10ean	gai proposamenak eta lehen zirriborroak klase teorikoa	
3	Urri17an	antolaketaren proposamenak klase teorikoa	antolaketaren proposamenaren EMATEA
4	Urr 24	antolaketaren proposamenak klase teorikoa	
	Azar5-8	Etxebizitza jardunaldiak	
5	Azar7	proposamenen zuzenketak klase teorikoa	Etxebizitza jardunaldiak
6	Azar14	proposamenen zuzenketak klase teorikoa	
7	Azar21	goiz eta arratsaldez: klase teorikoa	Aurreproiektua
8	Azar28	proposamenen zuzenketak klase teorikoa	
9	Abend5	proposamenen zuzenketak klase teorikoa	Aurreproiektuaren EMATEA
10	Abend12	proposamenen zuzenketak klase teorikoa	
11	Abend19	goiz eta arratsaldez: Aurreproiektuaren aurkezpen/emate	
12	Urtar16	Oinarrizko proiektuen zuzenketak klase teorikoa	
13	Urtar23	Oinarrizko proiektuen zuzenketak klase teorikoa	
14	Urtar29	Oinarrizko Proiektuaren ematea	azken ematea
	Urtar30	goiz eta arratsaldez Oinarrizko Proiektuaren aurkezpena	
18	Martx20	goizean, Garapen Teknikoa & Proiektuala Oinarrizko proiektuen jarraipena/zuzenketak	
19	Martx27	arratsaldez Proiektuen jarraipena A eta B Master Gelakoekin elkarrekin	

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

Ebaluazio sistema

Antolaketa ematea	%10
Aurreproiektu ematea	% 20
Azken ematea	% 70



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

PROIEKTU GAIAK

Lehen aipatu bezala, ikasleak hiru aukeren artean erabakiko du zer proiektua mota egin, GRAL proiektua birplanteatu, Gai libre bat proposatu edo Gai Ofiziala hartu. Aurtengo ikasturterako gai ofizialak ezaugarri gehitu bat izango dute, Arkitektura Bienalarekin erlazioa. 2025ean ospatuko den **MUGAK Arkitektura Bienalaren** xedea master gai bezala jorratzea proposatzen da.

MUGAK Arkitektura Bienala

Hurrengo urteko edizioaren gaia UTOPIA da. Galdera orokor batetik abiatzen da bienalaren xedea, hau da: **Zeintzuk dira gaur egungo utopiak?** utopia modu askotan uler daiteke, batzuetan egoera idiliko bezala ulertu izan da, hau da lor ez daitekeen zerbait bezala, nolabaiteko egoera perfektua irudikatzen duena. Beste ikuspegi xumeago bat izan dezake utopiak, nolabaiteko helburu edo etorkizun desiragarri bezala ulertzea. Zentzu honetan ulertuta gure esparruan egiten dugun galdera da. Nolako izan beharko lirateke gure hiriak?

Masterraren gaiaren esparruan gai ofizial bezala Donostiako leku estrategiko aukeratu da. Leku horretan antolamendu orokorrak proposatu eta zati bat garatuko da. Programa orokorraren parte ezinbesteko etxebizitza izango da, bere modalitate ezberdinetan (segmentu sozial desberdinetarako zuzkidura-etxebizitzak, erabilera kolektibokoak, babes ofizialekoa, libreak, etxebizitza produktiboak...). Hiri ehundura konplexua eta erreala izateko beste erabilerekin konbinatu ahal izango da.

Etxebizitza jardunaldiak

2024ko Azaroaren 5etik 8ra etxebizitzari buruzko jardunaldiak ospatuko dira eskolan. Jardunaldi hauetako lau egunetan, zenbait adituek beren lanak aurkeztera etorriko dira, eta etxebizitzaren aspektu ezberdinez arituko ere. Egitaraua erabat finkatzeaz dago, baina hauek dira proposatzen diren gaiak

Azaroaren 5ean: Etxebizitza kudeaketa modu berritzaileak (jabegoa partekatua modelo ezberdinak, erabilera kooperatibak, community land trust...)

Azaroaren 6an: Ikuspegi soziala.

Azaroaren 7an: proiektua eta eraikuntza. (Industrializazioa, osagaien berrerabilera, auto eraikuntza...)

Azaroaren 8an: Ikuspegi klimatikoa. Larrialdi klimatikoaren aurrean proposamen berritzaileak.

Datak hurbildu ahala, informazioa osatzen joango da.

Nahiz egutegi aldetik konplexua izan, Hitzaldiak, Masterreko klaseak izango dira bete-betean.

Bienalean aurkezpena

2025 urteko Azaroan Mugak Bienalaren bostgarren edizioa ospatuko da. Masterrean egindako lanak bertan aurkeztu ahal izango dira. Garai horretarako masterra amaituta egongo da. Erakusketa honetan urtean zehar egindako lanaren aurkezpena izan. Jarduera honetan parte hartzea erabat libre da, ikasle bakoitzak edo talde bakoitzak lanak aurkeztu nahi duen erabakiko du.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

GAI OFIZIALA

(beste gai ofiziala bat gehiago prest egon daiteke Masterrko hastapenetan)

MARTUTENeko APOSTOLUTZA KALEAREN INGURUA



Antolatzeko eremua

Martuteneko sarreran dagoen Apostolutza kalearen inguruan etxebizitzak, eliza bat, eraikin industrial zaharkituak eta orube hutsak tartekatzen diren inguru bat da.

Helburua

Bertan hiri ehundura bat proposatu, eta Ibaiaren frontea eta ibai ertzeko paseo ingurua antolatu.

Programa

Etxebizitza modelo ezberdinak: zuzkidura alojamenduak, erabilera kooperatibak, babes ofizialeko etxeak, etxe libreak, etxebizitza produktiboak...

Erabilera osagarriak proposatu ahal izango dira.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

BALIABIDE ERABILGARRIAK

Bibliografía

Equipo Arquitectura. ¡El tiempo construye! El proyecto Experimental de Vivienda (PREVI) de Lima: génesis y desenlace. Gustavo Gili. Barcelona, 2008

Gehl Jan. La humanización del espacio urbano. La vida social entre los edificios. Editorial Reverte, Barcelona 2006.

Gili Galfetti, Gustau. Pisos piloto. Células domésticas experimentales. Editorial Gustavo Gili, Barcelona 1997.

Habraken, N. John. El diseño de soportes. Gustavo Gili. Barcelona, 2000 (Gustavo Gili. Barcelona, 1979, 1974)

Habraken, N. John. Soportes: vivienda y ciudad. Máster LVSXXI. UPC. Barcelona, 2009.

Harvey, David. Ciudades rebeldes, del derecho de la ciudad a la revolución urbana. Ediciones Akal, Madrid 2013

Jackobs Jane. Muerte y vida de las grandes ciudades. Capitán Swing Libros, Madrid 2011

Monteys Xabier. La calle y la casa. Urbanismo de interiores. Editorial GG, Barcelona 2017.

Monteys Xabier. La habitación. Más allá de la sala de estar. Editorial GG, Barcelona 20014.

Rolnik, Raquel. La Guerra de los Lugares. La colonización de la tierra y la vivienda en la era de las finanzas. Descontrol editorial. Barcelona 2018

Turner, John F.C. Autoconstrucción. Pepitas de calabaza, Logroño, 2018

Turner, John F.C. Housing by people: towards autonomy in building environment. Marion Boyars. London, 1976

Wadel Raina, Gerardo. "La sostenibilidad en la arquitectura industrializada: la construcción modular ligera aplicada a la vivienda" PhD diss., Universidad Politécnica de Cataluña, 2009
(<https://upcommons.upc.edu/handle/2117/93448>)

Web lekuak

GeoDonostia

<https://www.donostia.eus/ataria/es/web/geodonostia>

Geo Euskadi

<https://www.geo.euskadi.eus/inicio/>

Gipuzkoa Kartografia

<https://b5m.gipuzkoa.eus/web5000/es>



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ARKITEKTURA
GOI ESKOLA
TEKNIKOA
ESCUELA
TÉCNICA SUPERIOR
DE ARQUITECTURA

Gipuzkoa Katastroa

<https://ssl6.gipuzkoa.eus/CATASTRO/map.htm?id=69&idioma=esp>

Donostiako plano topografikoak

https://www.donostia.eus/info/ciudadano/urbanismo_cartografia.nsf/vowebContenidosId/NT0000094A?OpenDocument&idioma=cas&id=&cat=Qu

Donostiako Udaleko artxibo historikoa

https://www.donostia.eus/info/ayuntamiento/admin_archivo.nsf/fwHome?ReadForm&idioma=cas&id=C671670315425

Instituto Geográfico Nacional Kartoteka

<https://www.ign.es/web/catalogo-cartoteca/>

Kutxateka

https://www.kutxateka.eus/index.php/Front/Index/lang/eu_ES

Gipuzkoari buruzko argazkiak

Gure Gipuzkoa

<https://www.guregipuzkoa.eus/es/>

Gipuzkoari buruzko argazkiak

EUSTAT

<https://www.eustat.eus/indice.html>

EAEko informazio estadistikoa

2023ko Uztailan